# DEKLINABIDEA:NOREN, NOREKIN, NORENTZAT




**NOREN, NOREKIN, NORENTZAT**

- NOREN, NOREKIN eta NORENTZAT kasuak atzizkien bidez adierazten dira:
  - *Julen**ekin** (Norekin) noa Julen**en** (Noren) dortoka**rentzat** (Norentzat) uraza erostera.*

## 1.Irakurri esaldiak eta aukeratu azpimarratutako galderak Noren, Norekin, Norentzat galderari erantzuten dien.

- Amonaren betaurrekoak apurtu dira.
- Ikasgelako lagunekin jolasten naiz jolas-orduan.
- Familiako guztientzat ekarri ditugu opariak Paristik.
- Peioren txakurra oso ongi moldatzen da ume guztiekin.
- Izaki bizidun guztientzat da beharrezkoa ura.

## 2.Aukeratu hitz egokiak, esaldiak zuzen osatzeko.

- Xabier ______ joan zen atzo igerilekura.
  a) lagun batzurekin b) lagun batzukin c) lagun batzuekin
- Gozokiak ekarri dituzte auzoko neska-mutil ______.
  a) guztiarentzat b) guztientzat c) guztitzat
- Nire ustez, ______ belarriak elefanteenak bezain handiak dira.
  a) zenbait pertsonen b) zenbait pertsonaren c) zenbait pertsoneen
- Parkean jolasean ibiltzen gara ______.
  a) lagun askoekin b) lagun askoarekin c) lagun askorekin
- Zoriona eta bakea eskatzen ditugu munduko ______.
  a) umearentzat b) umerentzat c) umeentzat

LIVEWORKSHEETS

### 3. Osatu esaldiak, hitzei noren, norekin, norentzat kasuen atzizkiak jarriz.

- Zure____ erosi dudan gazta, ardi____ esne____ eginda dago.
- Amaia____ guraso____ elkartu naiz gaur kalean.
- Gu____ amona____ leihoa apurtu dute harri bat____.
- Zenbait lagun____ elkartu gara kalean eta goraintziak eman dizkigute familiako guzti____.
- Tori opari bat zure____, lagun guzti____ partez. Marko bat da eta maskor____ apaindu dugu.



### 4. Osatu testua, hitz egokiak aukeratuz.

## Perrexilondoren ajeak

Julen ____ kontsultara doa. ____ hitz egin nahi du bere maskotari buruz. Julen kezkatuta dago ____ osasuna dela-eta. Bitaminak eskatu nahi dizkio albaitariari ____, azken boladan makal samar ikusten baitu. Gainera, gero eta kolore berdeagoa hartzen ari dela iruditzen zaio Juleni eta ez daki ____ ____ eraginez izango ote den; izan ere, egunean, uraza oso bat ez da nahikoa dortoka ____!



LIVEWORKSHEETS